



UDAL BATZARRAK  
ONARTUA  
2018 URR. 29  
OCT. 29  
APROBADO  
POR EL PLENO MUNICIPAL

**EIBARKO UDALEAN EUSKAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA**

**VI. PLANGINTZALDIA (2018-2022)**



## AURKIBIDEA

- **0.- SARRERA** (3. orr.)
- **1.- PLANAREN ABIAPUNTUA** (3. orr.)
- **2.- ERABILERA-PLANEKO IRIZPIDE OROKORRAK** (6. orr)
- **3.- PLANGINTZALDIAREN ARDATZAK** (8.orr)
  - **3.1. Eragin-eremua**
  - **3.2. Eragin-epea**
  - **3.3. Administrazio publikoen betekizunak**
    - **3.3.1. Atalen definizioa**
    - **3.3.2. Eibarko Udaleko atalen sailkapena**
  - **3.4 Metodologia**
    - **3.4.1. Antolakuntza-egiturak**
      - **3.5.1.1. ENBA**
      - **3.5.1.2. Euskararen lan-mahaia**
    - **3.4.2. Planaren jarraipena eta ebaluaketa**
- **4.- BALIABIDEAK** (13.orr)
  - **4.1. Giza baliabideak**
  - **4.2. Normalizazio-ekintzak**
    - **4.2.1. Herri-administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzeko ekintzak**
    - **4.2.2. Euskara ere lan-hizkuntza izateko neurriak**
    - **4.2.3. Langileen euskara-gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak**
- **5.- GAUR EGUNEKO HIZKUNTZA-EGOERA** (16.orr)
  - **5.1. Ordezkarri politikoaren ezagutza maila**
  - **5.2. Udal-langileen ezagutza maila**
  - **5.3. Ondorioak**

0.- SARRERA

Planaren helburu nagusia **Euskararen Erabilera Araukotzeko 10/1982 Oinarrizko Legeak** esaten duena betetzeko pausoak ematea da, eta **86/1997 DEKRETUA, apirilaren 15ekoa**, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena betetzea, zehazki Lehen Atalburuko bigarren puntuan honako hau dioenean: *Euskal Autonomia Erkidegoan dauden herri-administrazioekin euskaraz jarduteko eskubide osoa du herritarrak eta, beraz, eskubide hori bete dadin, herri-aginteek, nork bere esparruan, euskara zerbitzu zein lan-hizkuntza modura normaltasunez erabiltzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko dituzte.*

Horregatik, neurri eta ekintza hauek proposatzen dira:

- 1.neurria: herri-administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea
- 2.neurria: euskara ere lan-hizkuntza izateko neurriak hartzea
- 3.neurria: langileen euskara-gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea

**1. PLANAREN ABAIPUNTUA: 2015EKO BIKAINEKO EBALUATZAILE TALDEAK EGINDAKO TXOSTENA ETA V. PLANGINTZALDIAREN AMAIERAKO EBALUAZIOA**

2015EKO BIKAINEKO EBALUATZAILE TALDEAK EGINDAKO TXOSTENA

*"Talde ebaluatzaile honen iritziz hauek dira EIBARKO UDALA dituen 3 indargunerik garrantzitsuenak:*

- 1. EIBARKO UDALAK ondo zaindu du bere irudi korporatiboa, baita hizkuntza-paisaia ere. Errotulazio gehiena ele bietan du, edo euskara hutsez, hori nahikoa den kasuetan.*
- 2. Udalak irizpideak eman ditu lehen hitza euskaraz izateko, eta herritarrari harrera euskaraz egiteko. Irizpide hori bete egiten da neurri handi batean.*
- 3. Erakundeak hartu duen hizkuntza-politikak emaitzak eman ditu. Lehen-lehenik langileak euskalduntzeko ahalegina egin zuen, bigarrenik euskara zerbitzu-hizkuntza izatea bermatu nahi izan zuen. Egun euskara lan-hizkuntza gisa indartu nahi du, eta euskara-plana instituzionalizatu. Euskara-Zerbitzuak oso jarrera aktiboa erakutsi du eta jakin du erakunde barruan bere lidergoa erakusten.*

*Bestetik, hauek izan daitezke erakundeari aurrera egiten gehien lagun diezaioketen palankak, erakundearen beraren lehentasunak, errendimendua (eragin biderkatzailea) eta egingarritasuna aintzat hartuta:*

1. *Udalak pausu garrantzitsuak eman ditu herritarrek euskaraz artatzeko eta zerbitzua euskaraz emateko. Orain, erabilera handitzeko estrategiak bilatu beharko lituzke.*
2. *Aurrekoekin lotura, erabilera sustatu beharko luke gainontzeko kanpo-harremanetan ere, eta ahal dela administrazioarekin harremanak euskaraz nahi dituzten elkarteekin, erakundeekin eta pertsonekin urrats berriak eman.*
3. *Euskara lan-hizkuntza izatea ere nahi duenez, baditu hor erronka garrantzitsuak, batez ere komunikazio horizontal eta bertikalean erabilera indartze aldera: inertiak astintzea, langileen arteko harremanetan euskara ohikoa izateko; edota hizkera teknikoa lantzea, langileek lanean euskaraz eroso aritzeko, adibidez.”*

#### V. PLANGINTZALDIAREN AMAIERAKO EBALUAZIOA

V. plangintzaldiaren amaieran egindako ebaluazioan lorpen eta hutsunerik garrantzitsuenak eta etorkizunerako erronkak identifikatu ditugu. Horrez gain, azterketa kuantitatiboko emaitzak ere kontuan hartu ditugu (Ikusi **eranskina**).

Lorpenak:

1. Irizpideak finkatzea, helburuak eta ekintzak ezartzea eta betetze mailaren jarraipena


Hizkuntza-irizpideak finkatu ditugu eta eguneratu: Euskararen ordenantza onartu da eta Udal-beharginendako eskuliburua berritu da. Hori guztia langileengana helarazteko, komunikazioa sistematizatu da hainbat egituraren bitartez: zuzendarien batzarra, euskararen lan-mahaia eta ordezkari politikoeekin egindako batzarrak nahiz langileekin sailez sail egindako bilerak.

Plangintzaldiko helburuak eskuratzeko helburu zehatzak eta neurriak zehaztu ditugu urtekako kudeaketa-planetan eta sailetan landutako plantxoetan.

Gainera, irizpideen betetze mailaren jarraipena sistematizatzen ari gara.

2. Euskara zerbitzu-hizkuntza gisa bermatuta, lan-hizkuntza izatea da gure helburu nagusia.

Horri dagokionez, urrats handia egin dugu, hasi gara gaztelaniarako ohitura poliki-poliki aldatzen, areagotu egin da euskararen erabilera langileen arteko ahozko harremanetan zein lan-bileretan. Horretarako funtsezkoa izan da plana



erakundetzeko egindako ahalegina, euskararen lan-mahairen bidez eta Bikain ziurtagirira aurkeztuta.

3. Langileen euskara-gaitasuna hobetzeko taldekako trebakuntza egin da. Horrez gain, plangintzaldiaren erdialdean, hizkuntza-jarreretan eta ohituratan eragiteko sentsibilizazio-saioak egin ditugu kanpoko zein barneko baliabideen bitartez.

#### Hutsuneak:

- 1 Langileen inplikazioa euskararen normalizazioan landu beharreko kontua da aurrerantzean ere. Gogorazi egin behar zaizkie hizkuntza-irizpideak, sailtako plana egin beharra ez dago barneratuta eta Euskara-sailetik sustatu behar da. Hau da, plana ez dago guztiz erakundetuta. Badago oraindik ere mikroplanik ez daukan sailik.

Udaltzaingoan plan berezia egiteko asmoa daukagu, sail estrategikoa baita herritarrekiko harremanei dagokienez.

Gure helburuak betetzen laguntzeko baliabideak landu beharra daukagu: informatika-tresnak, barruko dokumentuen ereduak sortu eta estandarizatu...

- 2 Euskara lan-hizkuntza izan dadin urratsak ematen jarraitu beharra dago, eta prestatu behar dugu datozen langile berriek hasiera-hasieratik euskarazko lan-harremanak egin ditzaten.

Beste administrazioekiko harremanetan ere eragin behar dugu. Ohiturak ari dira aldatzen hemen ere, neurri handi batean beste administrazio horietan ere badutelako euskara-plana, baina ez dugu orain arte esku-hartzerik egin arlo honetan.

- 3 Sentsibilizazioa landu beharra daukagu, udal-langile eta ordezkari garen aldetik, ekitaldi publikoetan eta herritar, elkarte eta gainerako administrazioen aurrean izan beharreko jarrera lantzeko.

#### Erronkak:



- Idatzizkoan sortze-hizkuntza euskara izatea.
- Plana erakundetzea.
- Baliabide informatikoak
- Kanpo-harremanetan euskararen erabilera areagotzea, batez ere, hornitzaileekin.
- Dokumentuen estandarizazioa

## 2. ERABILERA-PLANEKO IRIZPIDE OROKORRAK

Indarguneak eta zer hobetuak kontuan hartuta, VI. Plangintzaldiko ildo nagusiak identifikatu ditugu:

1. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak eta itzulpen- eta zuzenketa-irizpideak

Herri-administrazioan azken urteotan langileak euskalduntzen egin diren ahaleginen ondorioz, langile ugari dute euskaraz lan egiteko gaitasuna, maila batean edo bestean; dena dela, oraindik ere hainbat tokitan, urte luzeetako inertiaren indarrez, gaztelaniaz jarraitzen da lanean. Horretarako ezinbesteko gidari izango dira Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, dagoeneko IV. Plangintzaldian onartu zirenak. Bertan ezarritakoari jarraituz, itzulpenetarako eta zuzenketa-irizpideak ere finkatuko dira: zer egin behar den ele bietan, zer egin daitekeen ele bakarrean, nork itzuli behar dituen ele bakarrean egindakoa eta zer bidali ahal den zuzenketa-zerbitzura.


2. Itzulpen kopurua gutxitzea, dokumentuen estandarizazioa eta sortze-hizkuntza euskara izan dadin bultzatzea

Dokumentu estandarizatuen arloan lan asko egin bada ere, badago oraindik ere zeregina, barruko dokumentuen kasuan eta jendaurrean jarri beharreko informazioari dagokionez.

Gardentasunaren legearen eraginez, handia da ele bietan eman beharreko dokumentu kopurua. Hori dela eta, itzuli eta zuzendu beharreko emandako jarraibideez gainera, funtsezkoa izango da ahalik eta gehiena estandarizatzea eta sortze-hizkuntza euskara izan dadin bultzatzea, langileen esku jarritako baliabideen eta trebakuntzaren bitartez.

3. Ahozotasuna

VI. Plangintzaldian, euskara ahozko lan-hizkuntza gisa bultzatu beharra dago: ahoz euskara gero eta gehiago erabiltzea sustatu lankideen artean, lan-bileretan, egoera informaletan... Hizkuntzarekiko segurtasuna mintzapraktikaren bidez lortzen da, eta horrek isla izango du, zalantzarik gabe, baita idatzizko produkzioan ere.



Aldahitz eta Eusle metodologia moduko dinamikak sustatuko ditugu hizkuntza-ohituretan eragiteko eta langileen arteko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko.

#### 4. Herri-administrazioen arteko harremanetan euskararen erabilera handitzea

Ezinbestekoa da herri-administrazioen arteko komunikazioetan euskararen erabilera handitzeko helburua ere aintzat hartzea. Baina gai hau, herri-administrazioen arteko komunikazioena, alegia, ez da hizkuntza-normalizatorako teknikariaren erantzukizuna; aitzitik, erakunde-ordezkarien eta arduradunen erantzukizuna izango da.

Ardura eta erantzukizuna sailetan hartzeko lagungarria izango da sailetan eta zerbitzuetan mikroplanak egitea gune bakoitzean dagoen egoera, gaitasuna, harreman-sarea eta eginkizunak kontuan hartuta.

#### 5. Berriazko hizkuntza-prestakuntzaren eta trebakuntzaren garrantzia

Eibarko udaleko langileen %80k dagokien hizkuntza-eskakizuna edo altuagoa egiaztatuta daukate; baina horrek ez du beti bermatzen langile guztiek euskaraz lan egiteko erabateko gaitasuna dutenik gaur gaurkoz. Horregatik, laguntza eman behar zaie langileei: hizkuntza-prestakuntza, trebakuntza, zuzenketa-zerbitzua, dokumentu estandarrak, zerrenda terminologikoak eta abar.

Normalizazioari begira, hizkuntza-trebakuntza bezain eraginkorra da prestakuntza orokorra euskaraz ere jasotzea. Neurriak hartu beharko dira prestakuntza hori euskaraz eskaintzen dela bermatzeko, eta erraztasunak eman beharko zaizkie langileei euskaraz antolatzen diren ikastaroetara joan daitezen.

#### 6. Erabilera-Planetako parte-hartzaileak

Orain arteko planek eragindako langileez gain, VI. Plangintzaldian Atal bereziko langileak ere sartuko dira (mantenimendu-lantaldekoak, hilerrikoak, garbiketakoak), nahiz eta haien helburuak, ekintzak eta eginbeharrak ezberdinak izango diren, kontuan hartu behar baita Eibarko Udalak duen indizeagatik lanpostu horiek ez dutela izendatuta derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna.

#### 7. Administrazio atal elebidunak eta euskarazko atalak



Une honetan Euskara-arloa da euskarazko atal bakarra eta gainontzekoak, atal berezikoak izan ezik, atal elebidunak dira. Plangintzaldian zehar aztertuko da zenbait sail edo zerbitzu euskarazko atal izendatzea, orain arte bi zerbitzutan (Komunikazioan eta Liburutegian) eman diren urratsei jarraipena emanaz. Beraz, hainbat neurri eta ekimen sustatuko dira (hizkuntza-ohiturak aldatzeko dinamikak, euskarazko baliabide informatikoak, euskarazko prestakuntza) atal horietako eginkizunak batez ere euskaraz bete daitezen.

## 8. Etorri berrientzako protokoloa

Pertsonal sailean langile berriari egiten zaion harreraz gain, zeinetan azaltzen zaizkion Erabilera-planaren helburu nagusiak, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, lanpostuaren HE eta DD, atalaren izaera eta abar, komenigarritzat jotzen da protokoloa zehaztea eta bestelako ekintza batzuk ere martxan jartzea aztertzea: langilearen prestakuntza premiak aztertzea, sentsibilizazio-saioa eskaintzea, zuzenketa-zerbitzuaren eta itzulpen-zerbitzuaren berri ematea, sistema operatiboa eta aplikazioak euskaraz instalatzea...

## 3.- PLANGINTZALDIAREN ARDATZAK

### 3.1 Eragin-eremua

Plan honen eragin-eremua Eibarko Udala da, honako zuzendaritza hauetan banatuta:

Eibarko Udala:

- Alkatetza
- Hirigintza eta Obrak
- Langileria eta Antolaketa
- Idazkaritza
- Informatika
- Udaltzaingoa
- Ekonomia arloa (Kontuhartzailtza, Diruzaintza)
- Pegora
- Gizartekintza
- Garapena, Enplegua eta Berrikuntza
- Zerbitzu saila
- Euskara



- Kultura
- Zerbitzu sailaren barruan dauden brigadako langileak eta garbitzaileak (atal berezikoak) ere kontuan hartuko ditugu oraingo plangintza honetan, nahiz eta hizkuntza-eskakizunei dagokienez derrigortasunik ez duten lanpostuak izan.

Horiek guztiak kontuan hartuta, planak guztira 213 lanposturi eragingo die.

### **3.2 Eragin-epea**

Planaren eragin-epea 2018ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra izango da.

### **3.3 Administrazio publikoen betekizunak**

86/1997ko Dekretuaren 11. artikuluan, erakundeak nahitaez bete beharreko derrigorrezko hizkuntza-eskakizunen indizea ezartzen du. Indize hori Erroldako eta Biztanleria ete Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da honako formula honen bidez:  $\text{Euskaldunak} + (\text{ia euskaldunak} / 2)$ .

Hori horrela izanik, Eibarko Udalarik %63,18ko indizea dagokio, 2016ko erroldaren arabera.

Plangintzaldi honen helburua da euskara zerbitzu-hizkuntza gisa bermatzea, eta progresiboki euskara lan-hizkuntza izatea. Hori bideragarri egiteko Eibarko Udalak euskarazko atala izendatu du Euskara-zerbitzua, eta urratsak ematen ari da Komunikazio-arloa eta Liburutegia ere euskarazko zerbitzuak izan daitezen; eta atal elebidunak gainerako zerbitzuak (jendaurreko atalak, gizarte-izaerako atalak, eta izaera orokorrekoak).

Atal bereziko langileei dagokienez, planean sartu ditugu lehen aldiz. Atal horretarako ezarritako helburua izango da planaren gaineko informazioa jasotzea, euskara ikasteko aukera ematea eta herritarrekiko harremanetan euskarazko zerbitzua bermatzen hastea.

#### **3.3.1 Atalen definizioa**

Aipatu dekretuan ezartzen denari jarraituz, udal-administrazio honetako departamentuak honela bana daitezke:

A.- Jendaurreko atalak: atal hauen zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, hiritarrekiko harremanetan oinarritzen da.

B.- Gizarte mailako atalak: administrazioaren atal hauetako lanaren funtsa gizarte mailako harreman-sareak dira.

C.- Atal orokorrak: hauen zeregin nagusia administrazio barrukoa da.

D.- Atal bereziak: gehienetan eskuz egindako lanak burutzen dituzte, edo, bestela, lan teknikoak.

### 3.3.2 Eibarko Udaleko atalen sailkapena

A.- Jendaurreko izaerako atala: Pegora eta harreraz arduratzen diren sailetako zenbait langile

B.- Gizarte-izaerako atalak: Kultura, liburutegia, museoa eta dibujo eta zeramika eskolak; Euskara eta Udal Euskaltegia; Gizartekintzan gizarte-zerbitzuak, Etxez etxeko zerbitzua, Berdintasuna, Immigrazioa eta aniztasuna; Udaltzaingoa; Ego Ibarra; Ingurumena; Garapen, enplegua eta berrikuntza.

C.- Izaera orokorrekoak: Idazkaritza eta Zerbitzu orokorrak (atezaintza); Pertsonal, antolaketa eta komunikazioa; Informatika; Kontuhartzaitza-Diruzaintza; Hirigintza-Obrak; Zerbitzu-saila.

D.- Izaera berezikoak: Zerbitzu-saileko Mantenimendu-lantaldekoak, hilerrikoak, garbiketakoak eta ikastetxeetako atezainak.

TOKI ERAKUNDEKO LANPOSTUAK GUZTIRA		
2018an	LK	LK (%)
Jendaurreko izaera	34	15,9
Gizarte-izaera	88	41,3
Izaera Orokorra	48	22,5
Izaera Berezia	43	20,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>213</b>	<b>100</b>



### EUSKARAZKO ZERBITZUETAKO LANPOSTUAK

ATALEN IZAERA	2018an euskarazko				ataletako	
	DD-	DD- (%)	DD+	DD+ (%)	LK	LK (%)
Jendaurreko izaera			1	100	1	8,3
Gizarte-izaera			11*	100	11	91,6
Izaera Orokorra						
Izaera Berezia						

<b>GUZTIRA</b>			12		12	100
----------------	--	--	----	--	----	-----

\*Euskara arloko lanpostuak TG (Teknikari Gaitua) kodearekin identifikatzen dira; lanpostu horiek ez dute berez DDrik.

#### ATAL ELEBIDUNETAKO LANPOSTUAK

ATALEN IZAERA	2018an elebidun diren ataletako lanpostuak					
	DD-	DD- (%)	DD+	DD+ (%)	LK	LK (%)
<b>Jendurreko izaera</b>	1	3,3	29	96,6	30	18,9
<b>Gizarte-izaera</b>	5	6,4	72	93,5	77	48,7
<b>Izaera Orokorra</b>	2	3,9	49	96	51	32,2
<b>Izaera Berezia</b>						
<b>GUZTIRA</b>	10	6,3	148	93,6	158	100

#### ATAL ELEBIDUN EZ DIRENETAKO LANPOSTUAK

ATALEN IZAERA	2018an elebidun ez diren ataletako lanpostuak					
	DD-	DD- (%)	DD+	DD+ (%)	LK	LK (%)
<b>Jendurreko izaera</b>						
<b>Gizarte-izaera</b>						
<b>Izaera Orokorra</b>						
<b>Izaera Berezia</b>	39	90,6	4	9,3	43	100
<b>GUZTIRA</b>	39		4		43	100

DD- : derrigortasun-datarik ez duten lanpostuak

DD-(%): derrigortasun-datarik gabeko lanpostuak ehunekotan

DD+: derrigortasun-data dutenak

DD+(%):derrigortasun-data duten lanpostuak ehunekotan

LK: lanpostu kopurua

LK(%): lanpostu kopurua ehunekotan

### 3.4 Metodologia

Plangintzaldi honetarako metodologia honako hau izango da:

- Planak gidarizat du Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak VI. plangintzaldirako egindako txostena, *EAEko Herri Administrazio eta Erakundeetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planetarako irizpide orokorrak* izenekoa.

- V. plangintzaldiaren ebaluaketaren emaitzak eta esperientzia hartuko ditu oinarri.
- Eibarko udalean euskararen erabilera normalizatzeko plana diseinatuko dugu HIZKETA aplikazioaren bidez, eta urtekako kudeaketa-planak ere plataforma horretan egingo ditugu.
- Planak ENBA batzordearen oniritzia izango du eta Udalbatzan onartuko da.
- Zuzendaritza bakoitzak herritarrekin dituen harremanetan euskara erabiltzeko aukera bere osotasunean bermatu beharko du eta harremanetarako hizkuntza eta lan-hizkuntza euskara izan dadin bideak jorratuko ditu. Horretarako, Udaleko zuzendaritza guztiek urteko ekintza-plana egingo dute Euskara-Zerbitzuarekin lankidetzan, eta ENBA batzordearen oniritzia beharko dute.
- Plangintzaldiaren erdialdean eta amaieran jarraipena egingo zaio normalizazio-planari, eta urtero kudeaketa-planari eta sailtako mikroplanei.
- 2015ean lortutako Zilarrezko Bikain egiaztagiria berresteko asmotan berriro ere ebaluazioa eskatzeko bidea egingo da.

### 3.4.1 Antolakuntza-egiturak

ENBA (Euskararen Normalkuntzarako Batzorde Aholkularia)



Batzorde honetako partaideak hauek dira:

- Alkatea edo honek bere ordez izendatzen duena.
- Udalean ordezkaritza duen alderdi bakoitzeko zinegotzi bat
- Langileen batzordeko ordezkaritza bat
- Udaletxeko pertsonal burua
- Euskara-teknikaria
- Hizkuntza-normalizatzailea
- Udal Euskaltegiko zuzendaria

Honako egitekoak izango ditu:

- Planaren jarraipen-txostenak aztertzea, baloratzea eta egokitzapen-neurriak planteatzea.
- Euskararen lan-mahaiak egindako proposamenak aztertzea eta Gobernu Batzarrari bidaltzea onespina jasotzeko.

Euskararen lan-mahaia

Lan-mahaia honako hauek osatuko dute:

- Udaletxeko sail edo zuzendaritza bakoitzeko ordezkari bat
- Euskara-teknikaria
- Hizkuntza-normalizatzailea

Honako egitekoak izango ditu:

- Euskara-planaren garapenaren jarraipena egitea sailka.
- Sailka edo udaletxe osora begira hartu beharreko neurriak proposatzea.
- Lehentasunak zehaztea.
- Aurrera eramango diren normalizazio-ekintzak adostea, ENBAri proposatzeko.

### **3.4.2 Planaren jarraipena eta ebaluaketa**

VI. plangintzaldiaren jarraipena eta ebaluaketa egiteko Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren HIZKETA programa erabiliko da.

VI. plangintzaldiaren erdi aldean tarteko ebaluazioa egingo da, eta 2022an, amaierako ebaluazioa. Euskara sailaren ardura izango da neurketa tresnek emandako informazioa eta jarraipen-datuak kontuan izanik txosten orokorra egitea.

## **4.- BALIABIDEAK**

Eibarko udal-barneko euskararen Erabilera-Planak aurrera egin dezan, besteak beste honako hauek izango dira baliabide nagusiak:

### **4.1. Giza baliabideak**

-Erabilera-plana aurrera eramateko dokumentu honen 3.4.1. atalean aurreikusten diren antolakuntza-egituretan parte hartuko duten langileak.

-Euskara-arloko euskara-teknikaria eta hizkuntza-normalizatzailea. Berauen egitekoa izango da egitasmoaren diseinua proposatzea, hizkuntzari lotutako aholkularitza eta laguntza ematea (trebaketa, zuzenketak, hizkuntza-irizpideen gaineko informazioa ematea...) eta ebaluaketa egiteko metodologia proposatzea.

-Udal Euskaltegiko langileak. Berauen egitekoa izango da langile edo ordezkari politikoentzako euskara-saio bereziak ematea, euskara-saileko teknikariak eta normalizatzaileak erantzun ezin dutenean zuzenketak egitea.

### **4.2 Normalizazio-ekintzak**

Normalizazio-ekintza zehatzak urtekako kudeaketa-planean zehaztuko dira.  
Honako hauek dira Euskara-sailak VI. Plangintzaldian aurrera eramatea aurreikusten dituen normalizazio-ekintza nagusiak:

#### 4.2.1 Herri-administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzeko ekintzak

- Plan, helburu, ekintza eta egitasmoen berri eman antolakuntza-egituretan zein sailez sail, kontuan hartuta Atal bereziko langileak ere.
- Saitetako mikroplanak diseinatu, helburuak eta ekintzak identifikatu eta jarraipena egin.
- Langileentzako sentsibilizazio eta motibazio-tailerrak eta kanpainak antolatu herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko: lehen hitza euskaraz, euskaraz egindako eskaerei euskaraz erantzun...
- Langileen arteko euskararen erabilera sustatzeko ekimenak martxan jartzea: Aldahitz metodologia.
- Ordezkeri politikoak sentsibilizatzeko ekintzak burutzea euskara ikas dezaten eta udal-langileen eta herritarren aurrean euskara-planean jasotakoarekin bat datorren hizkuntza-jarrera izan dezaten.
- EAEko gainerako administrazioekiko harremanetan euskararen erabilera bideratzeko informazio-kanpaina egin eta euskarazko harreman-sareak sortzea bultzatzea.
- Bikain ziurtagiria berresteko prozesuan parte hartzea

#### 4.2.2 Euskara ere lan-hizkuntza izateko neurriak

- Estandarizatzeko moduko testuen inbentarioa egin eta euskararen erabilera errazten duten testu normalizatuak sortzen laguntzea.
- Laneko prestakuntza etengabearen barruan egiten diren prestakuntza-ikastaroak euskaraz ere egitea.
- Baliabide informatikoek eskaintzen dituzten aukeren berri ematea langileei (zuzentzaile ortografikoak, hiztegi terminologikoak, dokumentu bankuak, itzulpenak...)
- Udal-langileen ordenagailuetan sistema operatiboak eta aplikazioak progresiboki euskaraz jartzea. Horretarako, egoera aztertuko da eta plan mailakatua egingo da lehentasunak ezarriz. Lehentasunak ezartzeko kontuan



APROBADO  
2013 SEPT 23  
ORDENANZA

hartuko dira lanpostuaren hizkuntza eskakizuna eta unitatearen hizkuntza izaera. Horrez gain, komunikazioa eta sentsibilizazioa landuko da langileen artean tresna eta aplikazio informatikoen euskarazko bertsioa erabil dezaten. Udal-langile berriei dagokienez, sistema operatiboa hasieratik euskaraz jarriko zaie.

#### **4.2.3 Langileen euskara-gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak**

- Hizkuntza-prestakuntza eskaintzea 2013ko irailaren 6ko Gobernu Batzarrean onartutakoaren arabera.
- Derrigortasun-data izan eta dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten langileen egoeraren jarraipena egitea eta horien euskalduntzea bideratzeko proposamenak egitea.
- Erabilerara zuzendutako trebakuntza-saioak eta tailerrak eskaintzea.
- Langileei hizkuntza-aholkularitza eskaini eta idatzien zuzenketak egitea.





## **5.- GAUR EGUNeko HIZKUNTZA EGOERA**

### **5.1. Ordezkari politikoen ezagutza maila**

20 zinegotzik eta alkateak osatzen dute Eibarko Udala. Horietatik 17 ordezkari ondo hitz egiteko gai dira; eta 19k ulertzen dute.

### **5.2. Udal-langileen ezagutza maila**

Atal elebidunetako eta euskarazko ataletako langileen %85ek dagokien hizkuntza-eskakizuna edo altuagoa lortua dute.  
Atal berezikoaren artean langileen %53k dute dagokiena.  
Langile guztiak kontuan hartuta langileen %80k.

### **5.3. Ondorioak**

Ordezkari politikoei dagokienean esan daiteke kasurik gehienetan eman daitezkeela urratsak udaleko lan-hizkuntza euskara ere izan dadin progresiboki, gehienek bide hori jorrazteko ulermen maila nahikoa baitute.

Langileei dagokienean, gehienek dute gutxieneko maila bat lortua, beraz, ezagutza aldetik, ez legoke eragozpen handirik hainbat lan-jardun euskaraz ere burutzeko.

Sailtako buruek dagokien hizkuntza-eskakizuna edo bat gutxiago egiaztatua dute. 2. HE denek dute.

